



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Potemkin, fikzio eta errealitatearen artean

Krimea, 1787. Katalina II.a Errusia-koak (1729-1796) bisitaldi ofiziala egin zuen, Errusiak konkistatu berri zuen lurraldea nola zegoen ikusteko. Tsarina gustura geratu omen zen ikusi zuenarekin; herriaren ongizatea bermatzen zuten politika egokiak ezartzen ari zen.

Baina errealitatea oso bestelakoa zen. Konkista zuzendu zuen militarrek, Ukrainako gobernadore Grigori Potemkin (1739-1791) erreginari aurkeztu zizkion herri idilikoak faltsuak omen ziren. Kale batzuetako etxeak kartoizko fatxadetz estali omen zituen, inguruko biztanleak dotore janztera behartu zituen eta populazioa mugiarazi zuen, herri biziagoak irudikatzen. Desfileak eta su artifizialak ere antolatu omen zituen. Edo horixe zabaldu zuten behintzat Potemkinen gortean zituen arerioek. Ukrainako gobernadore izan eta Itsaso Beltzeko errusiar ontzidial antolatzaez gain, Potemkin Katalina Handiaren maitalea ere bazen, eta primeran moldatzen zen gorteko trikimailuetan. Lagun nahiz etsai boteretsuak egiteko erraztasun handia eman zion horrek.

Orduz geroztik, "Potemkin herria" esamoldea herri baten edo beste edozer gauzaren egoera tamalgarria estali nahian herri edo gauza hori oso ondo



JOHANN BAPTIST VON LAMPI

GRIGORI POTEMKIN (1739-1791) ERRUSIAR MILITAR ETA POLITIKARIA. ABIZENA NAGUSIKI *POTEMKIN KORAZATUA* (1925) FILMAREKIN ETA ERRUSIAR IRAULTZAREKIN LOTU ARREN, "POTEMKIN HERRIA" ESAMOLDEAK JATORRI BERA DU.

aurkezten denean erabiltzen da. Fikziozko Potemkin herria da, esaterako, Berlangaren *Bienvenido Mr Marshall* (1953) filmeko Villar del Río herria; Gaztelako herria Andaluziako topikoz betetako he-

rriz mozorrotzen dute. Errealitatean, 1950eko hamarkadan Ipar Koreako zonalde desmilitarizatuan eraikitako Kijōng-dong da gehien aipatzen den adibidea. Baina esamoldearen adiera zabalduz gero, Las Vegas, esaterako, beste adibide bat izan daiteke; hiria zeharkatzen duen erdiko etorbideko neoi eta distiratik aldenuz gero, hiriaren alde itsusi eta miserablea agerian geratzen da. Eta, hain urrutira joan gabe, turismoa erakartzearen izenean, ez ote dira ari hainbat herri eta hiri Potemkin herri bihurtzen?

Potemkinen Krimean egindakoa egia izan ala ez, haren izena betirako itxurakeriarekin lotuta geratuko zen... iraultzarengatik eta zinemarengatik ez balitz. Potemkin hil eta mende batera, 1898an, Errusiar Inperioko Armada korazatu bat eraikitzen hasi zen Itsaso Beltzeko ontzidiko parte izan zedin. *Potemkin* izena jarri zioten. 1905ean *Potemkin* korazatuko marinela matxinatu egin ziren eta, gerora, 1917ko iraultzaren lehen pausotzat joko zuten ekintza hura. Eta 1925ean Sergei Eisenstein zuzendariak gertakaria jaso zuen zinemaren historia-ko film onenetarikoan: *Potemkin korazatua*. Eta horixe da, herri faltsuen gainetik, abizena entzun eta gehienei gogora etortzen zaiena. ●



Wilsonen arkua ala Herodesena?

Wilsonen arkua Erosten harresi-rako sarbide nagusietakoa da eta Jerusalemeko paisaiaren parte izan da mende luzez. Baina zenbat mendez? Orain arte hainbat hipotesi egin dira: 2.000 urte inguru zituela uste zuten batzuek; beste zenbaitentzat berriagoa zen, VII. mende ingurukoa. Bada, mikroarkeologia teknika berriak erabiliz, Weizmann Zientzia Institutuko arkeologoen lehen hipotesia egiaztat

dute: arkuak 2.000 urte inguru ditu eta Herodes I.a Handiak (K.a 73-4) eraikiarazi zuen. Jakina, Herodesek berak ez zuen harri bakarra mugituko, baina Charles Wilsonen bano lotura estuagoa izan zuen behintzat arkuarekin. Wilson XIX. mende amaierako britainiar ordenantza inspektorea izan zen. Hainbat urtez Jerusalem bizi izan zen eta horregatik dauka monumentu historikoak haren izena. ●